

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 14an hartutako erabakiaren laburpena: 2020an gazteei zuzendutako proiektu eta zerbitzuak bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 497325

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak sortzen dituzten eta Vitoria-Gasteizko udalariaren esparruan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, legez eratuta badaude eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Erakundeen Erregistro Nagusian eta Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda badaude.

Bigarrena. Helburua

2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean bideratuko diren proiektuak antolatu eta gauzatzetik sortzen diren gastuak ordaintzen laguntzea da deialdi honen xedea. Laguntza horiek jasotzeko, proiektu horien helbururik behinena gazteei gizarteratze aktibo eta parte hartzailea ahalbidetzen dieten alternatiba eta baliabide espezifikoak eskaintzea izan beharko da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 14an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 35.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei lanegun laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 14an

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO